



ZIGEZ MUNDUAREN BIDEZI!

IDEIAREN JATORRIA

Gure ideia zigarro-mutxikinak batzeko proiektu bat da, bertan zarama berezi batzuk jarriko genituzke kalean leku ezberdinetan eta horietan botatzen diren mutxikinekin beste produktu erabilgarri batzuk sortuko genituzke, mutxikin horiek makina batean jarriko lirateke eta horrekin mutxikina garbitu egingo litzateke eta beste produktua batzuk eratu lirateke.

Klaseko egun batean, jolas-ordutik bueltatzen ari ginenean, lurrean zeuden zigarro-mutxikin kantitate handiak zeudela konturatu ginen. Gelara heltzerakoan informazio bila jarri ginen eta irakurri genuen, urtero 4,5 trilioi zigarro-mutxikin jaurtitzen zirela lurrera eta horrek kontaminazio handia ekartzen du 10 urte baino gehiago irauten dutelako gure ingurumenean degradatu arte.. Hori irakurtzerakoan konturatu ginen zerbait egin genezakeela kontaminazio arazo horiek ekiditeko.



Arazo hori beste herrialde batzuetan dagoela konturatu ginen, baina herrialde horietan arazo honi aurre egiteko, enpresa batzuk dituzte ekimen berezi batzuekin. Adibidez, Chilen eta Argentinan IMEKO deitzen den enpresa bat dago, bertan zigarro-mutxikinak birziklatzen dituzte eta edalontzi-azpiko produktuak egiten ditu.

IDEIAREN DESKRIBAPENA

Bazenekien zigarro-mutxikinen portzentaje handi bat zuzenean lurrera edo itsasora joaten dela?

Proiektu honen helburu nagusia, ingurumena hobetzea eta kutsadura murriztea izango litzateke. Zigarro-mutxikin hori, gutxi



gorabehera 10 urte irauten du gure ingurumenean degradatu arte. Gure enpresarekin, mutxikin horiek zarama berezi batzuetan botako zituzketen erretzaileek. Gure lankideek mutxikinak batu egingo lituzkete eta horiekin beste produktu batzuk egingo lirateke.

Lehenik, zarama berezi horiek kaleko puntu estrategikoetan jarriko genituzke, adibidez, portaletan ondoan, tabernak dauden tokietan, aparkalekuetan...

Geroago, gure enpresako lankideak zaramen barruan dauden zigarro-mutxikinak batuko lituzkete eta enpresara eramán. Enpresan mutxikin guztiak daudenean, makina batera sartzen dira. Makina horretan, material toxikoa (Azetato de zelulosa) banatzen du zigarrotik eta geratzen den materiala %70 berrerabilgarriak dira. Geratzen den %30a tratamendu berez baten bidez, dituen produktu eta material toxikoak banatzen ditu eta toki seguru batean gordetzen dira, ingurumena ez kutsatzeko.

Geratzen zaigun materialarekin, produktu berriak egin ahal ditzakegu. Adibidez, edalontzi-azpiko produktuak, kortxoak, papera edo ume-jolasak.



IMEKO eta TerraCycle proiektuak goian aipatutako ekintza berdinak egiten dituzte. Hauek Australian, Estatu Batuetan, Chilen eta Argentinan kokatuta daude, baina Espainia mailan ez daude horrelako proiektuak.

Horregatik pentsatu dugu proiektu hau Durangon kokatzea lehenik eta Durangoko egoera hobetzen badu Espainia mailara zabaltzea.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Gure enpresak lortuko luke kaleak garbiago egotea eta horrela kontaminazio maila gutxitu egingo litzateke eta inguruak ikuspegi hobea izango luke. Horri esker lanpostu gehiago sortuko lirateke eta modu batean lagunduko genioke langabezia jaisten lagunduko genuke.